Hondakinen hierarkiari buruzko baliabideen inbentarioa

Klima Bai!

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Hondakinen hierarkiari buruzko baliabideen inbentarioa

Izenburua: Gipuzkoako hiri hondakinen prebentziorako eta kudeaketarako behatokia

Egilea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntza: Euskara eta gaztelania **Formatua:** Webgunea

Sinopsia: Gipuzkoako hiri hondakinen prebentziorako eta kudeaketarako behatokiak helburu nagusi hau du: lurraldeko hiri hondakinei buruzko informazioa irizpide homogeneoekin bildu, prestatu eta zabaltzea, eta hiri hondakinen kudeaketari buruzko alderdi guztien etengabeko jarraipena egitea. Aipatutako informazioari dagokionez, Behatokiak Gipuzkoako hiri hondakinen egoeraren eta bilakaeraren irudi zehatza emango du, eremu horretan erabakiak hartzeko baliagarria izango dena eta, gainera, gai horri buruz interesa duen pertsona edo erakunde orori behar bezalako informazioa emateko aukera emango duena.

ESTEKA



Izenburua: Inguru App

Egilea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntza: Euskara eta gaztelania **Formatua:** App

Sinopsia: Aplikazioak, Gipuzkoako udalerri bakoitzean ezarrita dagoen gaikako bilketa sistemaren arabera, hiri hondakinen sailkapen eta kudeaketa zuzen baterako informazioa eskaintzen du. Era berean, hondakinen birziklapenenerako sailkapen egokia egiterakoan ekiditen diren CO_2 isurien mezuak jasotzen dira hondakin mota bakoitzeko.

ESTEKA

Izenburua: Recycling Gipuzkoa Klusterra

Egilea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntza: Euskara eta gaztelania **Formatua:** Webgunea

Sinopsia: Katalogo honek Gipuzkoako birziklatzearen sektoreak ekonomian eta ingurumenean duen garrantzia nabarmentzen du, sektoreko eragileen arteko komunikazioan eta parte-hartzean lotura izateko xedez, guztion artean lankidetza-plataforma bat eraikitzeko eta eredu zirkular berri baterantz aurrera egiteko.

ESTEKA

Hondakinen hierarkiari buruzko baliabideen inbentarioa

Izenburua: **Rezero Fundazioa**

Egilea: Fundazioa Rezero

Hizkuntza: gaztelania, katalana eta ingelesa

Formatua: Webgunea

Sinopsia: Hondakinen Prebentziorako eta Kontsumo Arduratsurako Fundazioa erakunde pribatua da, independentea eta irabazi asmorik gabea, eta hondakinak murriztearen, berrerabiltzearen eta baliabide gisa aprobetxatzearen aldeko kulturan aurrera egiteko ekintzak eta politikak sustatzen ditu. Hondakinaren eta zero sorkuntzaren printzipioetan oinarritutako kontsumo-eredu berri baterako tresna garrantzitsuak ditu.

ESTEKA

Izenburua: **Hondakinen Prebentziorako Europako Astea**

Egilea: EWWR

Hizkuntza: Ingelesa **Formatua:** Webgunea

Sinopsia: Hondakinen Prebentziorako Europako Astea (EWWR) Europan hondakinen prebentzioari buruz kontzientziatzeko kanpaina handiena da. Tokiko eta eskualdeko agintari publikoek bultzatuta, mota guztietako eragileak biltzen ditu (herritarrak, eskolak, enpresak, GKEak, elkarteak), hondakinen murrizketari buruz kontzientziatzeko jarduerak antolatzen dituztenak.

ESTEKA



Izenburua: **Global Action Plan**

Egilea: Nazio Batuak

Hizkuntza: castellano **Formatua:** Webgunea

Sinopsia: EKINTZA GLOBALEKO PLANA (GLOBAL ACTION PLAN) hainbat herrialdetan garatzen den ekimena da, CO2 emisioak murriztera eta Garapen Jasangarriko Helburuak betetzen laguntzera bideratua. Helburua da 180.000 etxek eguneroko jardueretan dituzten ohiturak aldatzea, planetan sortzen dugun inpaktua murrizteko eta bizi garen lekuko bizi-kalitatea hobetzeko. Energia, ur, garraio eta hondakinetarako jarraibideak eskaintzen dira.

ESTEKA

Hondakinen hierarkiari buruzko baliabideen inbentarioa



Izenburua: **Zero Hondakin Europa**

Egilea: Zero Waste Europe eta Zero Waste Cities

Hizkuntza: Ingelesa **Formatua:** Webgunea

Sinopsia: «Zero Hondakin» nazioarteko aliantzak baliabide guztien kontserbazioa sustatzen du, produktuak, enbalajeak eta materialak, erre gabe, modu arduratsuan ekoiztu, kontsumitu, berrerabili eta berreskuratzeko ahaleginak eginez, eta lurrera, uretara edo airera isurketarik egin gabe, ingurumenaren edo giza osasunaren aurkakoak badira.

ESTEKA

Klima Bai!

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro